


# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/4/9 | 321

- |   |                                      |
|---|--------------------------------------|
| 🌀 | Amarozko auzo kontsultaren ondorioak |
| 🌀 | Helena Orcoyen sopranoa ezagutuz     |
| 🌀 | Belabietako buelta                   |
| 🌀 | Laburbira Tolosan                    |
| 🌀 | Aitor Ocampos txirrindularia bikain  |
| 🌀 | Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...    |



Mandoegi  
estazio megalitiko  
zentral eoliko

🌀 Miren Gonzalezekin solasean




# JANTZIAK OSKI oiñetakoak

Nafarroa etorbidea, 11  
Telf. 943 651 264




**3 hilabetetik 16 urte arte**



Kalitatea eta segurtasuna zure zerbitzura - Ezkontzak, irteerak, ikastetxeak, autobus literadunak gauz lasai bidaiatzeko...





Tel.: 666 489 010 / 11  
(24 orduak)  
Tel.: 943 305 050  
(Garajea)  
Faxa: 943 305 060  
(Garajea)  
Ubillus auzunea, 55 polig.  
9 pabilioia, 4 zbkia. ANDOAIN (Gipuzkoa)



**Iurre auzoa, 4 - 20400 Tolosa**  
Tel. 943 24 37 07

**NUTRIZIO AHOLKULARITZA**



**AMAIA ETXETXIPIA  
BIOLOGA**

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK



ILEAPAINDEGIA ESTETIKA SOLARIUM  
Oria kalea 16 behe - Tel. 943 65 58 37

**EZKONGAIENTZAT BONOAK 2010**

EZKONGAIENTZAT BASIKOAK

EMAZTEGAIA	180€
ORRAZKETA, MAKILLAJEA (PROBA BARNE), MANIKURA, BEKAINAK ETA GOIKO EZPAINA.	
SENARGAIA	60€
MOZKETA ETA ORRAZKETA (EZKONTZA EGUNEAN), "FOR MEN C-PLUS ENERGY" AURPEGI TRATAMENTUA ETA BEKAINEN DISEINUA.	
EZKONGAIENTZAT LUXUZKOA	
EMAZTEGAIA	220€
ORRAZKETA ETA MAKILLAJEA (PROBA BARNE), AURPEGIKO TRATAMENTUA, MANIKURA, BEKAINAK ETA GOIKO EZPAINA.	
SENARGAIA	100€
MOZKETA ETA MAKILLAJE TOKEA (EZKONTZA EGUNEAN), "FOR MEN C-PLUS ENERGY" AURPEGI TRATAMENTUA, BIZKAR MASAJEA, MANIKURA ETA BEKAINEN DISEINUA.	

EMAZTEGAIA TOTAL OUTLOOK 250€


ORRAZKETA ETA MAKILLAJEA (PROBA BARNE), AURPEGI TRATAMENTUA, MANIKURA, PEDIKURA, DEPILAZIOA (HANKA OSOAK, INGLEAK, BESAPEAK, BEKAINAK ETA GOIKO EZPAINA)

EMAZTEGAIA COMPLET 300€

ORRAZKETA ETA MAKILLAJEA (PROBA BARNE), AURPEGI TRATAMENTUA, GORPUTZERAKO SPA TRATAMENTUA, SPA MANIKURA, SPA PEDIKURA, DEPILAZIOA (HANKA OSOAK, INGLEAK, BESAPEAK, BEKAINAK ETA GOIKO EZPAINA)

**5 SOLARIUM  
SESIO DOAN**





**943 65 26 98**  
Nafarroa Etorbidea, 12  
20.400 - Tolosa - Gipuzkoa



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefona: 943 655 004  
 Faxe: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,  
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague  
 Banatzaileak: Olatz Garmendia  
 Juankar Arregi  
 Idazkaria: Edurne Mendia  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOIKK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
 diruz lagundutako argitalpena



## Erreportaia: Estazio megalitikoak zentral eoliko

Berastegi, Elduain, Hernani eta Urnieta udalerrietako lurretan dago Mandoegi muinoa. Urtarri-la amaieran, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolakuntza sailak, argi berdea eman zion lur hauek zentral eolikoa jartzeko proiektuari. Honek kezka eragin du: izan ere, Onyi-Mandoegi estazio megalitikoaren mugen barruan egingo da eraikuntza. Bertan, mairubartza multzo handi bat, trikuharriak eta zenbait monolito daude. Nola eragingo dio zentralaren eraikuntzak historiaurreko ondare honi?

8-11. orrialdeak

Denok daukagu zerbait eskaintzeko, daukagun horri balioa ematea da kontua. Miren Gonzalez Goikoetxea artista tolosarrak bere artea dauka, eta balio bereko zerbitzu eta materialen truke aldatu du "Fiordoan Trukean" erakusketan.

## Elkarrizketa: Miren Gonzalez

16-18. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Jose Agustin Arrieta eta Unai Igartua	4-5
	Normalizazioa: Propagandaren hizkuntz neurraketa	6-7
	Eskualdeko albisteak: Partaidetza bikaina Amarozko kontsultan	12-13
	Eskualdeko albisteak: Helena Orcoyen sopranoa saritua	14-15
	Bidean: Belabietako buelta	19
	Kultura: Apirilak 28an Laburbira Tolosan	20-21
	Kirol saltsa: Aitor Ocampos txirrindulariari elkarrizketa	22-23

## Elkarturik lan?



Joxe Agustin Arrieta  
Irakaslea

4 Aberri Egunaren atarian idazten dut. Azkenaldi honetan gauzak asko aldatu dira. Baina euskaldun eta abertzale bezala, Aberri Eguna sentitzeak, bizitzeak eta ospatzeak Euskal Herria –Euskadi- sines- tea eta herrigintzan egunero lan egitea eskatzen du. Ez da egun bateko lana, ezta oroitzapen sentikor hutsa. Bakarrik zure eguneroko lana txukun bete, eta herri honen zutabeak sendotu eta indartu.

Orain arte egin duguna ez da alferrikakoa izan. "Izan zirelako gara, eta garelako izango dira". Euskal Herriaren nortasuna, hizkuntza, gure legeak sendotu nahi ditugu. Herri honek bere nortasun agiria dauka, eta agiri hori suspertu, bideratu, indartu eta zabaldu nahi dugu: industrigintza suspertu, azpiegiturak berreraikitzen jarraitu, euskal irakaskuntza eta euskara indartzeko egin behar diren lanak bultzatu, herri nortasuna sendotu...

Hainbat aldiz idatzi dudana bezala, bortizkeria eta gogorkeria, ETAREN sarraskia berez txarra

eta herrigintzarako kaltegarria izan da, eta elkarrizketa bideak areagotu eta moztu egin baititu. Nik beti hala uste izan dut, ETA egiazko arazoa dela, eta gainera kaltegarria izan dela. Baina zoritxarrez, beste batzuk aitzakia eta mareagarri ere erabili izan dute.

Egia da traba askoren artean: krisi ekonomikoa, kutsadura, baliabide urritasuna, ustelkeria, administrazio astunegia, elkartasunik eza...ETA traba ikaragarria dela. Eta hemendik harantz, hemendik aurrera beharrezkoa dugula elkarbidea. Eta hemen ere katramila eta koska badugu.

Nik uste binomio honetan

dagoela gure gatazkaren karkoa: euskal nortasuna eta elkartzitza solidarioa edo beste era batera esanda, identitatea-solidaritatea. Binomio hau argitu behar da.

Espainiarekiko eta Frantziarekiko polo horretan, sentiberatasun desberdinak daude. Eta formula egokia bilatu behar da hau bideratzeko. Aspalditik, 1936ko Autonomi Estatutua izan zen, gero Gernikako Estatutua (1979: oraindik osatu gabe dagoena)...eta baita formula eta aukera berri bat ere Ibarretzek adierazi zuena: "Erabakitzeo eskubidea", hemen onartua eta Madrilen baztertua.

Nazio gabeko herriek ez dute estatuen Europarik nahi, herrien Europa baizik. Hori baita beren hizkuntza, beren aurrerabidea eta garapena ziurtatzeko modu bakarra. Hemendik ikusten dut etorkizuna.

Herri honek bere herritasuna galtzerik nahi ez badugu, elkarturik egin behar dugu lan. Elkarrizketa aurka jardun ez du, aurrerabiderik. Ezta bakoitza bere aldetik ibiliz ere. Gogorkeria eta terrorismoa ez baztertzeko, eragozpen handia da, eta berdin joko demokratikoa arbuizatea ere.

Egoera honetan, lehen eta orain, ETAK jokabide desatsegina, inhumanoa eta ankerra, bortxaz eta suntsiketaz, heriotzaz, hilketaz eta lehegailuz zipiritzindu digu gure euskal egoera. Ezin ahaztu kale borroka eta gure gazteria ataka ilunetan eta beltzetan sartu nahia.

Zorionez gure gizarteak pauso garrantzitsuak eman ditu,

ETAREN aurrean ozenki ezezko borobila adierazteko. Hala ere, terrorismoaren aurka edozer ekintza eta legedi ez da zilegi. Nik uste, legedia gehiegi estutzea, gaztetxoekin birgizarteratzea ahaztea, espetze politika gogortzea ez direla guztiz etikoak eta demokratikoak. Bestalde, ezin da ETAREN aitzakiarekin abertzale- letasuna zikindu eta pozoitu.

Elkartzitza buruzko akordioetan baldintzazko betekizun hauek azpimarratuko nituzke:

- Elkarrizketa dela bakerako bidea.

- ETAK bere bukaera aldarrikatu behar du eta hori bideratu behar du (armak utzi eta ETAREN desmilitarizazioa).

- Borondatea izan behar da euskal nortasunak eta abertzale- letasunak oztopo juridikorik ez duela izango. Errespetu demokratikoa.

- Alderdi bakoitzak bere proposamenak eta aukerak adierazteko eta eusteko eskubidea dauka, baina beti bakearen bilaketan (onartezina zait "Partiduen Legea-Ley de Partidos". Egoera honek gure elkar bizitzan eragina dauka, eta gainera eragin kaltegarria).

Euskal Herriak iraungo badu, bere bizibidea, bere nortasuna, bere hizkuntza eta abar

sendotu behar ditu. Eta hori norbere lanez eta elkarlan bateratu eta burutsuz bakarrik lortuko dugu, ez alferkeriaz eta eztabaida antzuz. Horregatik izenburuari jarri diodan galdera ikurra kenduko nuke eta bidea elkarlanean eraikiko nuke. Me-rezi duelakoan nago.

## Lurralde gabeko herri bat

Azken hamarkadetan aldaketa handiak jasan dituzte beren bizimoduetan Sahararrek. 1975. urtean Espainiako armadak kolonizatua izan zuen herritik alde egitera zihoazen, Saharar herria inbaditzaileen aurka babestuko zutela zin eginez, baina... Iparraldetik Marokok eta hegoaldetik Mauritaniak eraso gogorak jo zituzten lur aberats hauen jabe egiteko. Sahararrek, nola ez, beraien herria defendatu zuten talde polisarioaren bidez. Baina zer egin etsaiak zuk baino arma gehiago dituenen? Mauritania geratzea lortu zuten, baina Marokok bere indar guztia erabili zuen Sahararrak lur horietatik bidaltzeko. Izugarriko hilketak egin zituzten, torturak, bortxaketak, eta okupazioa sendotzeko "martxa berdea" delakoa antolatu. Marokoarrak kosta guzti horren jabe egin ziren, Espainiar gobernuak begiak isten zituen bitartean

Aurreko asteburuan Saharar herriaren aldeko bertso saioa izan zen Tolosan, bertan Talde Polisarioeko kide batek hitz egin zuen, bere bizitza hamar minututan kontatu zuelarik. Bost aldiz atxilotua eta bortizki torturatua izan zen, bere lagunak nola hiltzen zituzten ikusi zuen, nola tankeek beraien etxeak suntsitzen zituzten, edo agentzi sekretuek jendea bahitu eta elikopteroetan informazioa atera eta gero bertatik nola botatzen zituzten deskribatu zuen. Oso gogorra, eta gainera momentu horietan zein babes zuten ikusirik are eta gogorragoa. Inori ez zitzaion interesatzen guda

horretan sartzea, marokorekin merkatal kontratuak oso garrantzitsuak ziren (dira) eta ez zen (ez da) komeni Marokoko erregea haserrarazterik.

Beraien herritik bidaliak izan eta 35 urteetara, Sahararrek beraien lurretara itzultzeko itxaropena dute, beraien tradizioekin jarraitzen dute, haurren % 100 eskolarizatua da, aukera duten gazteak, kanpoan ikasi ondoren herrira itzultzen dira, beraien etorkizuneko herrian mediku edota irakasleak beharko baitituzte.

Baina gauzak berdin jarraitzen du, Espainiak bere koloniatzat zuen herriari bizkarra ematen jarraitzen du, inoizko espainiar gobernuak ez du ezer egin traizio hau konpontzeko, merkatal interesek garrantzi gehiago dute herri oso baten biziraupenak baino, beraz, ahal den gutxien hitz egin gai honetaz... eta ikusten ez duten begiek ez dute sufritzen... Ez da Aminatou Haidarren bizitzak asko inportazioenik, bere gose grebagatik hiltzen bazen sortuko zuen oihartzunagatik soilik lagundu zioten. Berrero ere komunikabideen bosterea agerian. Milaka haur, gazte, heldu, erail dituzte lehen ere, batere tripa zorririk gabe.

Lehen aipatu bertso saioan, botatako lehen gaia, "zer egin duzu zuk Saharar herriarengatik?" izan zen, -Gai gogorralpentsatu nuen barnerako, -Zer egin dut nik sahararren alde ba? Zer egin dezaket ba?- Baina gero gai ona iruditu zitzaidan, bertso-lari beraien apuruak jendearen barne pentsamenduekin bat




Unai Igartua

Eneko Aritzaren lagunak taldeko kidea

Sahara, Afrika mendebaldean dagoen herrialde bat da. Lehen kolonizatua eta orain okupatua dagoen herrialde xumea. Egun beraien lurraldetatik at bizitzera kondenatuak daude, desertu bortitzean, "lotsaren" hesiak itxaropeneranzko ilusioak itsutzen dizkien bitartean.

egiten baitzuen. Zuentzako da orain gaia...

Gaur gaurkoz, Argeliako desertuan bizi dira saharar gehientsuenak, kanpo laguntza minimoa besterik ez dute, desertuan eraikitako kanpamentuetan dabilta, ezer gabe, beraien lurretatik ehunka kilometrora, soldaduz eta minaz josia dagoen hesi batek goitik behera banandua, ez diru iturri, ez janari, ez defendatzeko arma, ezer ez dutelarik. Zer gertatuko da herrialde honetan? Beste mila herri kolonizatu moduan desagertzeko arriskua ote du denborarekin? Beraien ametsa errealitate bihurtuko al da? Baietz pentsatzea gustatuko litzaidake, konbentziturik ikusten ditut, eta horrek ematen du indarra. Animo guztioi!! 

# Tolosaldeko etxeetako postontzietan jasotzen den propaganda-daren hizkuntz neurketa

Tolosaldeko zortzi herritan etxeetako postontzietan jasotako propaganda agiriak bildu (enpresen esku orriak, katalogoak...) eta hizkuntzaren erabileraren aldetik neurtu ditu Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Galtzaundi Euskara Taldeak. 24 herritarrez osatutako lan taldeak lagundu du agiri bilketa egiten ondoko herrietan: Aduna, Alegia, Anoeta, Irura, Villabona, Tolosa, Zizurkil eta Ibarra.

Agirietan hiru gauzari erreparatu diegu: 1) Hizkuntzaren erabilerari. Agiria zein hizkuntzatan zegoen aztertu dugu: euskara hutsez; euskaraz gaztelaniaz baino gehiago (horrelakorik jaso ez dugunez, ezabatu egin dugu taulatik; ele biz (orekaz); gaztelaniaz euskaraz baino gehiago; eta gaztelania hutsez. 2) Agirian iragarritako web gunean informazioa euskaraz eskuratu daitekeen ala ez. 3) Bestelako datuak: euskara txukuna den, ulertzen den edo ez, iragartzen diren produktuetan euskara erabiltzerik badagoen...

Egitasmoa hasi eta sei hilabetera gutun batzuk prestatu genituen enpresei bidaltzeko: alde bategatik, ondo egindakoagatik zoriontzeko eta berdin jarrai dezaten eskatzeko; eta bestetik, euskararen erabileraren aldetik zuzendu beharrekoak zuzen ditzaten eskatzeko.

Gutunak Galtzaundik eta UEMAK prestatu zituzten, eta zazpi udaletako alkateek sinatuta bidali ziren, Tolosako gutunak bidaltzearen ardura Galtzaundik hartu zuelarik. Guztira, bidalitako 265 gutunetatik hiru erantzun jaso genituen. Carrefour, Eroski eta Moonbeauty estetika zentruetik hain zuzen ere. Aipatu beharra dago, bakar batek ere ez duela konpromiso zehatzik hartu euskararen erabileran aldaketarik egiteko.

Agiriak euskaratzeko enpresek inolako betebeharririk duten jakiteko, Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin jarri gara harremanetan, eta haiek eman digute aholkularitza. Behatokiaren irakurketaren arabera, legearen edukian ez dago heldulekurik enpresei eskatzeko agiriak euskaraz bidal ditzaten. Nolanahi ere, argi utzi behar da lege urraketarik ez egoteak ez duela esan nahi hizkuntza eskubideen urraketarik ez dagoenik.

Ondorioz, pixkanaka-pixkanaka aurrerapausoak

6



Imanol Haro UEMAKo teknikaria eta Amaia Doyague Galtzaundiko langilea neurketaren egileak


Agirien bidaltzaileak eta euren hizkuntz erabilera

Herria	Enpresak	E	Ele biz	G > E	G
Aduna	29	0 (%0)	5 (%83)	0 (%0)	1 (%17)
Alegia	28	0 (%0)	9 (%33)	3 (%11)	15 (%56)
Irura	7	0 (%0)	2 (%29)	1 (%14)	4 (%57)
Anoeta	16	0 (%0)	5 (%31)	2 (%12)	9 (%56)
Ibarra	42	2 (%5)	5 (%12)	10 (%24)	25 (%59)
Zizurkil	21	0 (%0)	4 (%19)	5 (%24)	12 (%57)
Villabona	47	1 (%2)	17 (%36)	4 (%8)	25 (%54)
Tolosa	75	2 (%2)	18 (%24)	7 (%9)	48 (%65)

Agirietan iragartzen diren web guneetan badago informazioa euskaraz eskuraterik?

Herria	Web guneak	Ez	Bai
Aduna	6	1 (%100)	0 (%0)
Alegia	9	8 (%89)	1 (%11)
Irura	3	2 (%67)	1 (%33)
Anoeta	13	11 (%85)	2 (%15)
Ibarra	28	21 (%75)	7 (%25)
Zizurkil	10	9 (%90)	1 (%10)
Villabona	26	23 (%89)	3 (%11)
Tolosa	38	32 (%84)	6 (%16)

ematen diren arren, benetakoa jauzi kualitatiboa ez da etorriko publizitatean euskararen erabilera arautzen den lege bat indarrean jarri arte. Zoritxarrez,

egungo lege esparruak ez du bermatzen agirietan euskararen presentzia gaztelaniazkoaren parekoa izaterik, errealitateak argi erakusten duenez. 

## Kultur ekitaldiak



Apirilak 15

Ipuin kontalaria  
Idoia Sanchez  
Albizturgo liburutegian  
18.00etan

Apirilak 22

Idoia Sanchez  
Ibarrako Liburutegian  
18.00etan



Apirilak 28

Laburbira 2010

Tolosako Kultur etxeko areto nagusian, apirilaren 28an, 20.00etan



Baserriko produktu naturalak  
Mahala baserria • LEABURU  
Tel.: 943 673 499



Osagaiak  
Desarrolloak  
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199  
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzzeria eta konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7  
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

# ANTZA



8





Eusko Jaurlaritzak Mandoegi mendian zentral eolikoa jartzeko proiektuari lehentasun osoa eman dio

# Estazio megalitikoak zentral eoliko

Leire Zubeldia

Berastegi, Elduain, Hernani eta Urnieta udalerrietako lurretan dago Mandoegi muinoa. Urtarrila amaieran, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolakuntza sailak, argi berdea eman zion lur hauetan zentral eolikoa jartzeko proiektuari; are gehiago, lehentasun osoa eman zion parke honen instalazioari. Honen kezka eragin du: izan ere, Onyi-Mandoegi estazio megalitikoaren mugen barruan egingo da eraikuntza. Bertan, mairubaratza multzo handi bat, trikuharriak eta zenbait monolito daude. Nola eragingo dio zentralaren eraikuntzak historiaurreko ondare honi?

9

Hona hemen garapenaren paradoxa: K.a.-ko gizakiek eraikitako monumentu multzoaren leku berean energia berriztagarria ekoizteko zentral modernoa eraikiko da. Eusko Jaurlaritzak, Eudel eta Gipuzkoako zein Bizkaiako Aldundien adostasunarekin azken urteetan ez aurrera ez atzera zegoen EAEko Energia Eolikoa Antolatzeko Lurralde

Arloko Plan Sektoriala desblokeatu du. Bertan, Gazumeko parke eolikoaren proiektua atzera bota dute, eta Mandoegi mendian eraiki beharreko zentralari lehentasun osoa eman diote. Parke eolikoa Berastegi eta Elduaingo lurretan eraikiko da, instalazio lanek, Hernani eta Urnieta lurrak ere kaltetuko dituzten arren.



Altzista harrespila Elduaingo lurretan.

Mandoegiko zentral eolikoari 2009ko urriaren 21ean eman zitzaion argi berdea. Zortzi hilabeteren ondoren jaso du azken onarpena. 28 eoliko izango ditu, bakoitza 850 Kw-eko potentziarekin.

#### Ingurunea eta ondarea zaintzeko adierazpena

Zentralaren onarpenarekin batera, ingurumena eta ondarea zaintzeko adierazpen bat egin zuten agintariek. Neurri honekin, batetik, babestuta dagoen Leitzarán ibaiko biotopoa zaindu nahi dute, bertako flora suntsitzea debekatuz, berezko begetazioa mantendu araz eta gainazal zein lurrazpiko ur-iturriak babestuz; bestetik, adierazpenak instalazioa egin beharreko lekuan dagoen estazio megalitiko nabarmen du. Eraikuntza lanen garaian Onyi-Mandoegi lerroan aurkitzen den monumentu oro seinalizatu egin beharko dela agintzen

du agiriak kamioi eta makinaria pisutsuak harrespila eta trikuharrietatik urrun mantentzeko. Gainera, instalazio lanetan beste megalitorik aurkitzen bada lanak bertan behera uzteko konpromisoa adierazten du; kasu horretan, aurkikuntza berri hori ikertu eta berau babesteko neurriak hartu ondoren ber-abiaturik irateke lanak.

#### Adarratik Mandoegiraino Leitzarán bailaran barrena


Zentral eoliko Elduain eta Berastegiko lurretan eraikiko da; honebestez, inguru hauetako monumentuei eragingo lieke lanek. Baina Onyi-Mandoegi estazio megalitiko Adarra mendian hasi eta Mandoegin amaitzen da, tartean Onddo (Onyi) mendixka ere zeharkatuz. Monumentuak aipatutako bi muinoen arteko lerroan daude. Arro hauetan banatzen dira Leitzarán eta Urumea ibaien urak ere.

Mandoegiko zentral eolikoari 2009ko urriaren 21ean eman zitzaion argi berdea. Zortzi hilabeteren ondoren jaso du azken onarpena. 28 eoliko izango ditu, bakoitza 850 Kw-eko potentziarekin.

Lerro luze horretan harrespilak edo mairubaratzak dira nagusi. Dena den zenbait trikuharri ere badaude, eta monolito edo menhir-ak ere aurkituko ditugu. Arraroa da horrenbeste harrespila izatea, lerro honetatik gertu dagoen Belabietako estazio megalitikoan ez baitago bakar bat ere. Monumentu hauen aurkikuntza banaka edo pixkanaka egin da. Hala ere, unitate guztiak bat eginda, estazio megalitiko bezala aztertu izan dira.

Onyi-Mandoegi estazio megalitikoan 16 monumentu daude, gaur arte. 12 harrespila, hiru trikuharri eta 2 menhir daude, horietako bat Etenetako harrespilarekin batera. Monumentu hauetatik gehienak Urnieta eta Elduain udalerriko lurretan daude. Elduaingo ei erreparaturik, Urnieta lurretatik gatzela, Otsolepo-ko trikuharria topaturiko dugu lehenbizi. Onddo eta Zaburuko gainen artean dago; bisitatzea merezi duen Etenetako harrespilatik segituan iristen da, Onddo muinoa ezkerretatik



 Deskargako harrespila Berastegin.

ingurutzen duen bidea hartuta. Bere tumuluak 7,3 metroko diametroa du eta metro erdiko altuera. Erdiko kraterrean ganbarako losa bat agertzen da. Jesus Altuna eta Koro Mariaezkurrena arkeologoek aurkitu zuten 1978an. Egitura antzeman daitekeen arren, egoera kaxkarran dago.

Otsolepoko trikuharritik Zaburu mendixka ezkerreko bidezidorretik zeharkatzen badugu, segituan Altxista harrespila multzora iritsiko gara. Zortzi unitate ditu mairubaratza honek. Lehenengo harrespila Migel Barandiaran etnografoak aurkitu zuen 1926an. Gainontzekoak denborarekin aurkitzen joan ziren hainbat arkeologoen eskutik. Hemendik hego-ekialdera dagoen maldatxo bat igozten badugu, metro gutxiren buruan bistaratuko dugu Altxistako trikuharria. 1923an aurkitu zuen Barandiaranek. Egoera txarrean dagoen arren, merezi du

ikusteak, 10 metroko diametroa baitu eta metro erdiko altuera. Nahiko handia da beraz.


Elduain eta Hernaniko lurretan dago berriz Etzelako mairubaratza. Zinez ikusgarria da: izan ere, 16 harrespilako multzoa da hau. Batzuk egoera bikainean daude, beste batzuk berriz ez horrenbeste. Onyi-Mandoegiko multzorik handiena da. Altxistako harrespilatik Azketa mendira eramango gaituen bidea hartuta iritsiko gara bertara. Hemendik ekialderago, beste harrespila bat aurkituko dugu, Etzela ekialdekoa. 50 metro jaitsi eta alambre-hesi bat zeharkatuta iritsiko gara. Hau ere oso egoera onean dago.

Etzelako megalitoetatik Abadekurutz mendirantz eramango gaituen pista hartuz gero, Etzelako arritxuriak izeneko harrespilarekin egingo dugu topo. Bi harrespilako multzoa da, gaur arte egoera onean mantendu dena.

## Onyi-Mandoegi estazio megalitikoa

- Arleorko Zabala harrespila (Urnieta)
- Aballarri trikuharria (Urnieta)
- Elurzulo harrespila (Urnieta)
- Tximista harrespila (Urnieta)
- Tximistako egia harrespila (Urnieta)
- Etenetako harrespila eta menhir-a (Urnieta)
- Eteneta II harrespila (Urnieta)
- Usobelartza menhir-a (Andoain)
- Otsolepoko trikuharria (Elduain)
- Altxista harrespila (Elduain)
- Altxista trikuharria (Elduain)
- Etzela ekialdeko harrespila (Elduain)
- Etzelako harrespila (Elduain)
- Etzelako arritxuriak harrespila (Elduain)
- Deskargako harrespila (Berastegi)
- Abadekurutz-eko harrespila (Berastegi)

Jada Berastegiko lurretan sartuta, Deskargako harrespila multzora iritsiko ginatke. Horretarako, Abadekurutz mendia mendebaldetik jaitsiko genuke. Bi harrespila daude, baina bere egoera kaxkarra dela eta, egun bakar bat nabarmetzen da soilik. Azkenik, Berastegin bertan eta Abadekurutz mendian beherago eginda Abadekurutzeko harrespila aurkituko dugu. Hiru unitate ditu, baina higaduraren poderioz egoera kaxkarran daude egun, eta zaila da antzematen.

Ibilaldi ederra eta ondare aldetik aberatsa dugu beraz Adarra eta Mandoegi muinoen artekoa. Ezagutzen ez duenak orain du horretarako aukera, historia aurreko gizakien hilobiak errota moderno erraldoien ondoan txiki bilakatu baino lehen. 

2010  
URTARRILAREN  
23 eta 24



Proiektu bakoitza banan-bana aztertu beharko da orain horretarako partaidetza prozesu txikiak zabalduz

# Kirol, kultur eta osasun ekipamenduak amaro

Parte Hartuz taldeko kideek txosten batean bildu dituzte auzoko etorkizuna erabakitzekeo partaidetza prozesuan auzotarrek egindako ekarpenak. Ondorio horiek bizilagunen aurrean aurkeztu eta gero, orain amaroztarrak eurak dira prozesua aurrera eraman behar dutenak. Gehien proposatutako proiektuak banan-banatu eta udaletxearekin negoziatu beharko dute.

Parte Hartuz-eko teknikariek emango dizkiete horretarako baliabide eta oinarri metodologikoak.

Leire Zubeldia

Jonathan, Gorka eta Antton izan dira Amaroitz auzoko partaidetza prozesu hau diseinatu duten Parte Hartuz taldeko kideak. Amaroitz-eko bizilagunekin egin beharreko azken bilkuraren aurretik elkartu dira Galtzaundirekin. "Gure lana auzo kontsulta diseinatu,



Partaidetza handia izan du Amaroitzko auzo kontsultak.

ekarpenak jaso eta ondorioen txostena egitea zen. Ondorio horiek aurkeztu dizkiegu, proposatutako proiektuen gainean eztabaidatu dugu, orain eurek jarraitu behar dute prozesuarekin", azaldu dute. Horretarako metodologia bat proposatuko diete auzotarrei: "Badira proiektu batzuk auzotar askok proposatu dituztenak. Horiek, banan-banatu aztertu, proiektuaren ezaugarrietaz eztabaidatu eta sakonago landu beharko dituzte. Azken finean, proiektu garrantzitsu bakoitzeko partaidetza prozesu txiki bat egin beharko dute". Izan ere, esku

artean duten txostena auzotarrek auzoaz egiten duten argazki orokor bat besterik ez da, eta ezer egiten hasi aurretik, beharrezkoa da guztia ongi xehetzea.

## Partaidetza bikaina

Urtarrilaren 22 eta 23ko asteburuan egin zen auzo kontsulta Amaroitzen. Eguraldi eskasa egin zuen, baina hala ere auzotarrak erruz hurbildu ziren partaidetza paneletara. Parte Hartuz taldea oso gustura dago ekimenak izan duen erantzunarekin. "Normalean jendea hurbiltzen da partaidetza gu-

# Arloko amaroztarren eskaera nagusiak

neetara, baina gehienek ez dituzte beren ekarpenak egiten. Hemen bi gauzak gertatu ziren: partaidetza paneletara hurbildu eta bere ekarpenak egin zituzten amaroztarrek". Guztira hirurehun pertsonak hartu zuten parte eta 450 ekarpen jaso ziren. Arrakastaren gakoa Auzo Elkarrekin egindako lana dela aitortu dute teknikariek: Kartelak jarri zituzten, bilera informatiboak antolatu ziren, jendea mugiarazi zuten.... Lan handia egin zuten partaidetza prozesu hau ondo atera zedin. Argi dago pisu handia dutela auzoan".

## Eskaera nagusiak

Alor ezberdinetako eskaera ugari egin zituzten auzotarrak urtarilaren 22 eta 23ko jardunaldietan. Baina badira zenbait proiektu auzotar ugari beharrezkotzat ikusi dituztenak. Lau ideietan laburbildu daitezke: kultura, kirol eta osasun ekipamenduak eta Tolosa herrigunearrekin komunikazio-bideak zein garraioa.

Kultur ekipamenduei dagokionez, auzotar askok beharrezkotzat jo dute kultur eginkizunetarako eraikin bat egitea. Kirolaren esparruan ere ekarpen ugari errepikatu da kirol anitzetarako espazio estali baten beharra.

"Proiektu hau auzoan egingo den urbanizazio berriarekin lotzen dute. Urbanizazioaren eta auzo zaharren artean egingo den lotura-gunean frontoi bat egitea aurreikusten da. Bada, frontoi hori baliatuz kirol ezberdinak egiteko espazio estalia egokitu nahi dute. Urbanizazio berriaren proiektuan ordea ez da horrelakorik aurreikusten". Leku berean, aisialdirako gune berde bat jartzeko proposamena ere orokorra izan da.

Osasun arloan, osasun zerbitzuen hobekuntza aldarrikatu dute. "Asko izan dira pediatriaren kontsulta auzoan jartzea eskatu dutenak". Bizilagunen beste kezka iturria Tolosa herrigunea eta auzoaren arteko komunikazio-bideak dira: "Batetik, garraio publikoaren ordutegia zabaldu eta ugartzea eskatzen dute, eta horrekin batera geltoki bat jartzea; gezurra badirudi ere, Amarotz-en ez dago autobusaren zain egoteko markesinarik. Bestalde, espaloiak, bide-gorriak eta abar hobetzea ere eskaeren artean dago".

Kutxazain automatikorik ez izatea; horra hor amaroztarren beste gabezia nagusia. "Kasu honetan eskaera hori betetzea ez dirudi oso zaila denik. Gainera, Amarotz-eko komer-

tzioa sustatuko luke. Izan ere, dirua ateratzera Tolosara joan behar baduzu bertan egin dituzu erosketak". Komertzioa sustatu behar ote den ere eztabaidatu da partaidetza prozesuan. Egiari zor, gutxi dira horren beharra ikusi dutenak, baina Parte Hartuz taldekoen iritziz, komertzio biziago bat izateak ekarpen handia egingo lioke auzoari.

Gune berdeak, lurpeko aparkalekuak, auzora autoz sartzeko lurpeko sarbidea, gazteentzako guneak... mota guztietako eskaerak bildu dituzte. "Baina aipatutako kultur, kirol eta osasun ekipamenduen gainekoei eman behar zaie lehentasun gehien, horiek izan baitira parte hartzaileak ia aho batez eskatu dituztenak. Jendeak eta udal-letxeak kontutan hartu beharko lituzkete".

Zailena eginda dago: partaidetzaren bidea ireki dute Amarotzen. "Auzotarrak lan egiteko bide hau ontzat hartu dute; gure ustez, ez emaitzak bakarrik, partaidetza prozesua bera eredutzat hartu beharko lukete aurrerantzean sortzen diren proiektu eta asmo berriak gauzatzeko orduan". Bai amaroztarrek, bai Tolosako gainontzeko auzoek, eta baita Udalak berak ere.

Galtzaundi 321  
10eko apirilak 9

**Beti Nahi**  
gaitzak

Garaian garaiko janariak  
eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

**ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA**

Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

**Beatriz**  
Dekorazio  
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak  
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886-943 420 187

Donostia  
Garibai, 8  
943 420 259-943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615-943 671 149

**Arteka**

**ESKULANAK**

Nafarroa etorbidea, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 655 577



Ibartarra, Colmenar Viejoko Nazioarteko sariketan saritua izan ondoren lehiaketa gehiagotan parte hartzeko animatuta dago

# Helena Orcoyen soprano

Madriilen, RTVE-ko orfeoiarekin kontzertu bat eman eta egun gutxiren buruan elkartu da Galtzaundi Helena Orcoyen Ibarako sopranoarekin. 2007an irabazitako kantari gazteen lehiaketak Espainiako antzoki ezberdinetan egoteko aukera eman dio. Aurten, otsailean, Colmenar Viejo -ko nazioarteko lehiaketan ere saritua izan da.

Erredakzioa

## Noiz eta nola sartu zinen kantuararen munduan?

Ez da oso ohikoa bost urteko neskatok batek Maria Calas entzutea; bada, nik orduak eta orduak pasatzen nituen entzuten. Nire gurasoek ez zekiten nora jo nire zaletasuna landunezan. Azkenean pianoa ikasten hasi eta aldi berean Odeitruk abesbatzan eman nuen izena. Egia esatera, abesbatzan nabarmendu egiten nintzen. Orduan, gurasoek kantugintzako irakasle partikular batengana eraman ninduten. 15 urte bete nituenean, erdi mailako ikasketak egiten hasi nintzen

Francisco Escudero zentruan. Lehenengo urtean ez nuen zorterik izan irakaslearekin. Kantugintzan oso garrantzitsua da irakaslearen papera: irakasleak, ona bada, izugarri lagundu zaitzake; txarra bada, zure karrera izurratu dezake. Ahotsa oso gauza delikatua da. Lehenengo kurtso hartan ez nuen kantatzen ikasi. Geroza izugarritzko zortea izan nuen, Inmaculada Martinez irakaslea egokitu baizitzaidan. Lau urte eman nituen berarekin. Izugarri ikasi nuen. Beti aipatzen dut bera, oso pertsona berezia baita niretzat. Orain Ana Maria Sanchez irakaslearekin nago. Inmaculadak berak gomendatu zidan, eta egia esan, oso gustura nabil.

## Nola hezten da ahotsa?

Ez da batere erraza. Hasi-ran imitatu egiten duzu, baina gero zuk zerorrek bilatu eta sortzen dituzu sentsazioak. Oso zaila da hau azaltzen. Sentsazio horiek zure borondatez sortzen dituzunean ikasi duzula esan daiteke.

Bestalde, beharrezkoa da hainbat hizkuntza menperatzea. Hasteko, ingelera ondo jakin behar duzu, antzokitik kanpo bada ere, ezinbestekoa baita kantugintzaren munduan mugitzeko. Antzoki barruan ondo ibiltzeko berriz, italiara eta alemaniera menperatu behar dira derrigor.

Aipatu dituzun irakasleek ez ezik, 2007an irabazi zenuen kantari gazteen lehiaketak



# da na ioarte mailan saritua

## ere tranpolin gisa balio izan dizu...

21 urte nituen orduan. Lehiaketa 25 urte artekoentzat zen. Oraindik ikasteko asko izan arren, Inmaculadak prest nengoela esan zidan. Parte hartzaile guztiak entzunda, beste neska bati emango ziotela sinetsita nengoen. Lehenengo saria eman zidatela jakin nuenean negarrari ekin nion, ez nuen sinisten.

Lehiaketa hori irabazi izanakin hainbat kontzertu egiteko aukera eman dit. Irabazi nituen 6.000 euroak girak finantzatzeko izan dira. Dirurik ez dut ikusi ere egin, baina diruak baino gehigo balio du Granadako Kantu eta Dantza Jaialdian kantatzeak. Kantugintzaren munduan oso ekitaldi garrantzitsua da hori. RTVE-ko orfeoiarekin kantatzeko aukera ere izan dut due-la gutxi. Sariak soprano bezala hazten lagundu dit.

## Otsailean Colmenar Viejo lehiaketan ere saria irabazi zenuen...

Nazioarteko lehiaketa da. Mundu guztiko abeslariak zeuden, 60 parte hartzaile inguru guztira. Oso emaitza ona da ematen zituzten 5 sarrietatik bat neronek eramatea. Egia esatera ez da batere erraza horrelako lehiaketetan saria eskuratzea. Adinaren faktorea nire aurka daukat. 23 urte ditut: oso gaztea naiz horrelakoetan sariak lortzeko. Maila altuagoko lehiaketetara

joatea, Viñas batera esaterako, ez dut planteatu ere egin oraindik. Epaimahaikoek ez dituzte abeslari gazteak gustuko. Oraindik itxaron egin behar dut.

## Lehiakortasun handia al dago kantugintzaren munduan?

Bai, izugarri. Batez ere kategoria berekoak direnen artean egoten da kompetentzia hori: sopranoak sopranoekin, eta mezoak mezoekin. Jende jatorrarekin topo egin dut, baina asko dira eror zaitezen hanka jartzen dizutenak. Niri hori ez zait batere gustatzen. Nik nahiago dut maila apalagoan ibili eta lagunak izatea, Alemaniako antzoki garrantzitsuetan kantatu eta bakarrik egotea baino.

## Nondik mugitu zara egindako biratan?

Espainiar estatuan ibili naiz. Ez dut urrutirago joan nahi izan, ikasten ari bainaiz. Nik sortu zaizkidan aukerak aprobetxatu ditut. Hori bai, aukera horiek iristeko gogotik egin behar izan dut lan. Esaterako, Bilboko kantu txapelketan parte hartu nuen: lehenengo eliminatorian kanpora bota ninduten. Emaitza ez zen batere ona izan beraz. Baina hara non, AMAC elkarteko ordezkari batek entzun ninduela. Nire ahotsa gustatu eta eurekin lanean aritu naiz.

## Lehiaketak irabaztea bakarrik ez, batera eta bestera mugitzea ere garrantzitsua da beraz?

Bai. Ezin duzu zure kris-



Nik ezin dut opera bat ikustera joan, opera batean jarduteko ikasten ari naizen arren. Jende gaztearentzako, gutxienez Musikeneko ikasleentzako, abonu merkeagoak atera beharko lituzkete.



talezko kutxatxoan geldirik egon zure bila joango dire-lakoan. Umilagoa izan behar da; hara eta hona ibili eta zaplastekoak hartu behar dira ikasteko. Nik masaileko asko jaso ditut: momentuan gaizki pasatzen duzu, baina gogorra egiten zaituzte. Ni gero eta harrizkoagoa naiz; hori esaten didate ingurukoek. Eta harrizkoa izan behar duzu gainera, gauza asko jasan behar izaten baitira.

## Lehiaketak dira mundu hone-tan barneratzeko bide bakarra?

Inondik inora ere ez. Lehiaketak irabazteak ez du esan nahi zure ibilbide profesionala bermatuta duzunik. Nik uste dut, sariketetara ez ezik, audizioetara ere joan behar dela. Azken finean, une eta leku egokian egoten jakin behar da. Asmatzen baduzu bakain. Baina normalean, lau pauso aurrera ematen dituzunean bi atzera ematen dituzu. Horrelakoa da kantua mundua.


## Lehiaketa gehiagotan parte hartzeko asmorik baduzu?

Bai, oso animatuta nago. Santanderreko Torre la Vega lehiaketara joateko asmoa dut, eta agian, Logroñoko lehiaketara ere animtuko naiz. Hori ikasketek uzten badidate, noski.

## Noraino iritsi nahi duzu?

Nik teatro batean lan egin nahi dut. Espainian lan egitea izango litzateke egokiena, baina oso zaila dago. Nik uste dut, Europatik ibili beharko dudala; hemen izena lortzeko kanpoan ibili beharra dago. Absurdoa da, baina horrela da. Hemen oso jende ona dago eta kanpora joan behar izaten dute hontatik bizitzeko.

## Opera gutxi programatzen da hemen, agian jende gutxiri zuzenduta dagoelako?

Donostian urtean 2 opera programatuko dira, eta gainera abonatuentzat izaten da soilik. Sarrerak 130 euro inguruan ibiltzen dira. Nik ezin dut opera bat ikustera joan, opera batean jarduteko ikasten ari naizen arren. Soilik emanaldi batean egon nintzen, duela urte asko. Jende gaztearentzako, gutxienez Musikeneko ikasleentzako, abonu merkeagoak atera beharko lituzkete. Horrek izugarri-zuko amorrua sortarazten dit. Horrela ez da opera indartuko. 

Truke sistemarekin jarraitzeko asmoa du Miren Gonzalez-ek. Erakusketa beste areto batera mugitu eta esperientziaren inguruko argitalpen bat egiteko asmoa lantzen ari da.

# Miren Gonzalez

*“Fiordoan trukean erakusketak gauzak beste era batera egin daitezkeela erakutsi du”*

Denok daukagu zerbait eskaintzeko, daukagun horri balioa ematea da kontua.

Miren Gonzalez Goikoetxea artista tolosarrak bere artea dauka, eta balio bereko zerbitzu eta materialen truke aldatu du “Fiordoan Trukean” erakusketan. Finean,

ordaintzeko beste modu bat proposatu du. Artearen bidez adierazi du, sistemak ezartzen dituen bidez gain badirela zirrikituak gauzak beste era batera egiteko. Erakusketa amaitu bada ere, aurrerantzean [www.mirengonzalezgoikoetxea.com](http://www.mirengonzalezgoikoetxea.com) web gunearen bidez egin ahal izango dira trukeak.

Leire Zubeldia





Zer moduz joan da zure azken erakusketa eta honekin batera martxan jarri duzun truke sistema?

Balorazio oso ona egiten dut. 20 koadro mugitu dira eta lanak atera zaizkit trukean. Oraintxe erakusleiho bat egiten aritu naiz, eta lan horren trukean denda horretako arropa lortu dut. Sortu den mugimendua izugarria izan da. Kontaktu batek bestera eraman nau.

Beraz jendeak harrera ona egin dio truke sistemari...

Bai, antzina erabiltzen zen sistema da, baina gaur egun oso ondo datorkigu mugitzeko. Azken finean, nik eskaintzen dudana ordaintzeko beste era bat da. Funtsean salerosketa ekintza bat da, baina trukean egiten dena. Bazegoen jendea nere koadro bat eduki nahi zuena, baina margo originalak garestiak direnez ez zuen horretarako aukerarik; era honetan koadroak eskuratu dituzte.

Artea saltzea baino errazagoa da trukateza?

Garai hauetan bai. Dena den, markak hautsi ditu erakusketa honek, koadroak saltzeko modua ere eman baitit. Hori ere trukea da finean: koadroa euroen truke.

Jendea etorri zaizu edo zuk joan behar izan duzu haiengana?

Jendeak eskaini dit niri. Ni ez naiz jendearen atzetik ibili. Gauza asko proposatu dizkidate. Trukaketa batzuk atzeratu egin ditut, gauza batzuk ez ditudalako orain behar, eta agian hemendik denbora batera ondo etorriko zaizkidalako. Jendea animatu



egin da; lotsa gainditu eta zerbait proposatu dute.

Zein trukaketa egin dituzu?

Trukaketa bakoitzak bere berezitasuna du. Enpresekin, komertzioekin eta norbanakoekin egin ditut trukeak. Denetatik izan da. Hori bai, trukaketak egiteko balorazio zehatzak eta serioak egin ditugu.

Komertzio batek koadro bat hartzen badit kontu bat irekitzen dit bere dendan koadroak duen baliara iritsi arte erosketak egiteko. Tuduri enmarkazio dendaekin horrelako zerbait egin dut; oso ondo datorkit hurrengo erakusketako koadroak enmarkatzeko. MRWrekin ere oso trukaketa ona egin dut: 3 koadro hartu dituzte, Naturaldia bildumakoak. Orain kontu bat daukat hor, koadroak mezulari bidez bidaltzeko. Erakusketan neukan bionbo bat ere etxe osoko instalazio elektrikoarengatik aldatu diot elektrizista bati. Trukerik garrantzitsuena web orria egitea ahalbidetu didana izan da. Ei-

barko enpresa batek eskaini dit. Erakusketa amaitu da, baina web orri honen bidez trukeak egiten jarraituko dut, eta aurrerantzean ere proposamenak bertatik biderratu daitezke.

Nondik nora sortu zitzaizun ideia hau?

Parisen erakusketa bat egin nuen azaroan. Hamar egun eman behar nituen han eta bertan ostatu hartzeko modu bat bilatu behar nuen. Horrela, lagun bati posta elektronikoa bidali nion, Parisen ostatu eman ziezadakeen norbait bilatzeko asmoz posta hori bere lagunaren artean zabaldu zezan. Truke bat proposatzen nuen. Bada, aurkitu nuen aterpea; eta ez hori bakarrik; proposamen pila bat jaso nituen. Trukeak funtzionatu egiten duela konturatu nintzen orduan. Denak daukagu besteei eskaintzeko zerbait, daukagun horri balore bat ematea da kontua.

Zein ondorio ateratzen duzu esperientzia honetatik?

Santi Erasok erakusketaren

inguruko testu bat idaztea eskaini dit. Berak oso hausnarketa interesgarria egin du esperientzia honen inguruan: askotan entzuten da arteak ez duela ezertarako balio. Bada, Santik aldarrikatzen du arteak asko balio duela pentsatzeko motor bezala, ideia berriak sortzeko eta gizarteari proposatzeko. Erakusketa honek gauzak beste era batera egin daitezkeela erakutsi du. Egungo sistemak jartzen duen bide zurrunik atera eta zirrikitu berriak aurkitu daitezkeela esaten du. Niri oso interesgarria iruditzen zait hori erakusketa batean islatu eta jendeak proposamen berriarekin bat egitea.

Eta bide batez artistentzat arteaz bizitzeko beste era bat izan daiteke...

Bai noski. Nik behar ditudan gauzak lortu ditut trukearen bidez. Baina garrantzitsuena koadroak mugitzea da. Koadroak tailerlean pilatuta izateak asko deprimitzen gaitu artistoi.



“Nik behar ditudan gauzak lortu ditut trukearen bidez. Baina garrantzitsuena koadroak mugitzea da”.

**Erakusketa honetako koadroak Jabier Muguruzaren “Fiordoan” diskoa entzunez egin dituzu. Zer lortu nahi zenuen horrekin? Musika mota batek lan mota bat ekar dezakeela erakustea, agian?**

Musika oso garrantzitsua da guretzat, gure lana oso bakarria baita estudioan gaudenean. Proiektua hasi nuenean, Jabier Muguruza ezagutu nuen, eta bere musika entzunez hasi nintzen lanean. Musikak eragina du margoetan: askotan gora eramaten gaitu eta besteetan behera. Jabierren musikak ordea puntu

berezi batean jarri ninduen. Puntu horretan gustura nengoen, eta horrekin jarraitu nahi izan nuen amaieraraino. Bilduma egiteko aukeratu dudana kolorea berriz musika aukeratu baino lehen erabaki nuen. Kasualitatea izan da koloreak eta tituluak, “Fiordoan” bat egitea.

**Musikak zure lanaren zein parte betetzen du? Inspirazio iturri izan daiteke?**

Izan daiteke. Hau egiten dudana lehenengo aldia izan da. Orain arte, ez dut kontutan eduki musi-

kak izan dezakeen eragina. Baina berriro proba egitea izango litzateke kontua.

**Musika, kolorea, formak... koadro hauei bilduma izaera ematen dion beste ezaugarririk bada?**

Erakusketa amaitu da eta horretan pentsatzen aritu naiz. Duela lau urte Indian sei hilabeteko egonaldia egin nuen. Bi urtez han jasotakoarekin lanean aritu nintzen: oso lan teknikoa izan zen, detailatua, xehetasun txikiekin eta abar. Nekatuta amaitu nuen eta koadro askeak, koloretsuak, inprobisatuak egiten hasi nintzen. Nik uste dut bilduma honek bietatik duela: Indiako teknika dauka batetik, eta bestetik bat-bateko espresioa.

**Duela gutxi Pariseko areto batean erakutsi dituzu zure lanak. Zaila behar du izan Pariseraino iristea...**

Zinez zaila da. Nik Alemaniako neska batekin egin dut lan. Manager funtzioak betetzen ditu. Hiru artista aukeratu zituen, ni tartean, eta hiruron lanak bildu zituen erakusketa horretan. Izugarritzko aukera izan da. Oso pozik nago, hemendik ateratzeko gogoia neukalako. Lanak mugitu egin behar dira, eta jende ezberdinak ikusi behar ditu. Datorren urtean berriro egiteko aukera izango dugu ziurrenik.

**Errepikapenaren eta konbinazioaren tesian oinarritu izan duzu zure lana. Bilduma honen oinarrian dago tesi hori?**

Ez. Hemen formak errepikatzen dira bakarrik. Tesia bukatu nahian nabil oraindik, baina pintura egiteko garaian distantziatu egin naiz sistema horretatik. Horreta-

Trukerik garrantzitsuena web orria egitea ahalbidetu didana izan da. Eibarko enpresa batek eskaini dit. Erakusketa amaitu da, baina web orri honen bidez trukeak egiten jarraituko dut.


rako gogoia eta beharra neukan. Aspaldian ez nuen horrela pinta-tu, pieza bakarrekin. Alde horretatik ere ezberdina izan da.

**“Fiordoan trukean” erakusketa beste nonbaitera mugitzeko asmorik baduzu?**

Trukearen proposamena hemen egin nahi nuen, gainera niri asko gustatzen zait Tolosan erakusketak egitea. Orain funtzionatu duela jakinda, gustatuko litzaidake Iparraldera edo Donostia ingurura eramatea. Baina erakusketa honetako 20 koadro banatu egin behar ditut trukeak egin ditudan pertsonen artean. Beraz, nik egin ditudan bilduma ezbedinetako koadroekin esposaketa berri bat egitea pentsatzen ari naiz, nolabait errekopilazio moduko bat.

**Bestelako proiekturik baduzu buruan?**

Trukearen ideiarri buruz argitalpen bat egiteko aukera daukat. Santi Erasok testu bat idazteko konpromisioa hartu zuen egin genuen trukean. Orain nola egin pentsatzen ari naiz. Baina hori da nire hurrengo helburua: argitalpen bat egitea. Bestalde, estudioa itzultzeko izugarritzko gogoia daukat. Ea zer ateratzen den!



## Bidean Uzturre besarkatuz baino mu<sup>x</sup>urik eman gabe



Iosu Iztueta  
Bidaiaria

Aurreko ibilbideak egitera-koan, Amezketan eta Berastegin ohartu nintzen tolosaldeko jende askok ez duela inoiz Uzturre mendia zapaldu. Tolosar gehienek mendi kuttuna da baina gaurko txangoan ez dugu tontorrera igotzeko asmorik ezta ere gurutzea ukitzeko tentaziorik. Labur eta zuzen esanda Belabietako buelta da egingo duguna.


Tolosako Santa Klaratik Izaskunera bide zaharretik oinez igo gaitzke edo kotxez errepidetik. Hiru ordu pasatxoko buelta da baina presaka bazabiltzate ermita-benta-jatetxe ingururaino hurbilduta ordu erdi bat jango diozue ibilbideari. Gerta liteke famili-talde-bikote planean denok berdina nahi ez izatea, orduan batzuk jolas parkera, besteak hamaiketakoak egitera edo dena delakora bideratu dezakegu ibilaldia.

Izaskungo muino honek (Ibarr-Tolosa muga) betidanik izan ditu ur arazoak, horren lekuko duela urte asko bidearen ezker-eskuin eraikitako porlanezko ur deposituak. Belardi ederrak berdetu ditu udaberriak; gus-tura dabilta larrea bazkatzen ardi, behor eta gainontzekoak Eskuintetik zeharka doan asfaltozko bideak Orita baserriraino eramango gaitu. Etxe atarian

garai bateko lan tresnak txukun txukun jarrita, beheko haranean Leitzara doan errepidea, Beotibar, Berrobi, Eldua, Elduain eta Berastegi zein baino zein altuago Nafarroako mugaraino.

Bidegurutze guztietan ezkerrekoa hartuz etorri gara, ordeka eta aldapan gora ia beti. Aurrerago iturria eta aska goiko aldean, kate batez lotutako antoisinetik ur trago fresko bat edan eta segi. Itun-Txulo dio iturriko izenak baina mapan Urtela bezala azaltzen da. Bideari jarraitu eta erdi erorita zegoen borda (aspaldian pasa gabea nintzen) konponduta dagoela ikusi dugu. Laster basotik atera eta zabalgunea, Belabietako paraje irekia bistaratu dugu, haren segidan Urdelar, San Lorentzo, Ipulino mendiak erraz bereizten dira, A 15 autobidea ere bai Belabietako tunel luzetik irten eta berriro ezkututzen den arte.

Honaino Izaskundik ordu bate egin dugu. Bidegurutzean Uzturreren bestaldetik etortzeko bideari helduko diogu. Zuhaitz eta harrietan arrasto hori zuriak egon badaude baino tarteka faltan botatzen dira. Azken haitzeteek botatako zuhaitz asko dago erorita, pistak zeharka eta beheara egiten du pixkanaka, lokatzik ez da falta, Belabietatik ordu erdira edo poste bat hiru bide elkartzen diren lekuan, ezkerretik segi Uzturre besarkatzen, ordurako Gazume eta Hernio arteko Zelatungo lepoa urrutira eta inguruko herriak banan banan ezagutzeko moduan, behean Oria ibaiaren alde banatara N 1 errepide nagusia eta trenbidea, baratzak, belardiak, soroak, eta batez ere etxeak-pabiloiak-etxeak-pabiloiak. Halako batean bista ezkerretara altxatu eta ehun metro gorago Uzturreko gurutzearen ez ohiko bista.

Langa pasa, artzain-borda deitzen genion etxearen aldamentetik pasa (atean Illarazu izena jartzen du), teilatu berria emanda dago eta konponduta, segi pistan beheara, Santa Luzia auzora doana eskuinera utzi. Klinikara joateko egin duten errepide berriko obrak ondo ikusten dira hemendik. Izaskun aldera itzuli behar badugu gorantz suabe-suabe eta bestela betiko errepideko bihurtzeko batera hartu. Non utzi duzu kotxea? 

Tolosako Kultur Etxean arratsaldeko 20:00etan izango da emanaldia

# Apirilak 28, Laburbira film laburren zirkuitua Tolosan

Dagoeneko ohitura bilakatu da euskarazko film laburren zirkuituak, aurtengoan "laburbira" izenez bataiatu dutenak, Tolosan geldialdia egitea. Apirilaren 28an iritsiko da zehazki gurera. Aurten gainera, ikusgai egongo den "Ahate pasa" laburmetrairen zuzendaria, Koldo Almandoz, etorriko da Tolosara bere lanaz hitz egiteko.

Leire Zubeldia

Euskaraz ekoiztutako laburmetraiarik onenak bildu eta Euskal Herriko txoko ezberdinetara eramaten ditu Film Laburren Zirkuituak. Aurten apirilaren 12an hasiko da bira eta maiatzaren 16an eskainiko da azkeneko emanaldia.

VII. edizio honetan esperientzia handiko zuzendarien lanak bildu dituzte gainera. Tartean daude: Telmo Esnal, besteak beste "Aupa Etxebeste" filmaren zuzendaria; Arkaitz Basterra, "Agian" dokumentalaren egilea; edo eta Koldo Almandoz bera, laburbirarekin batera Tolosan izango dugun zuzendaria. Bildumako laburmetraia ikusi eta "Ahate pasa" bere azken lanaz argibideak emango ditu zuzendari donostiarrak. Ikusleen eta egilearen arteko tertulia goxoa sortzea da helburua.

Gutzira bederatzi laburmetraia izango dira. Denen iraupena batuta, ordu eta hamar minutu inguruko saioa osatuko

da. Ikusiko diren lanak berriz, ondokoak:

## Ahate pasa


Koldo Almandoz

Zuzendari donostiarraren hamaikagarren lana da hau. Eginak dituen laburmetraietan ikusi da, Koldori esperimentazioa, pantailan ezustekoak ematea gustatzen zaiola. Bada, "Ahate pasa" lanean ere ikuslea harriturik geratuko da, bat-batean, ahateek pantaila gurutzatzen dutenean.

## Amona Putz!

Telmo Esnal

Asier Altunarekin batera ondu dituen lan ugari ezagun egin dira, "Aupa Etxebeste" edo "Brinkola" telesaila adibiderako. Tartean behin ordea, bakarrik lanegite gustatzen zaio zumaia-rrari. Oraingo honetan "Amona Putz!" Laburmetraiarekin itzuli zaigu: zenbaitetan, ume txikiak dituzten senar-emazteek amo-





naren falta igartzen dute, zenbaitetan soilik.

## Clark eta Boris

Jose Luis Barredo eta Iñigo Garcia

Bi zuzendariak zinerako duten zaletasuna konpartitu izan dute. Azken lan hau ere elkarrekin ondutakoa da: aspaldian elkar ikusi ez duten bi lagun bizitzak asko aldatu dira. Hori da oraingoan aukeratu duten abiapuntua eta muina.

## Iker

Esaiok

Arkaitz Basterrak esperientzia zabala du laburmetraiek, telebistarako filmeak, dokumentalak eta luzemetraiek egiten. Bere lan ezagunena "Agian" dokumentala da. Esaiok laburmetraian, Iker pertsonaiaren maitemina kontatzen digu. Beresentimenduak adierazteko ahalegina egin arren, beldurrak eta segurtasun faltak ez diote uzten ahaleginak burutzen.

## Nora zoaz

Josu Bergara eta Iñigo Sanz

"Nora Zoaz" laburmetraia titulu bereko kantuan oinarrituta dago. Josu Bergara Eako musikagileak eta Iñigo Sanz Zumarragako zinemagilearen arteko elkarlanak emandako fruitua da hau: ganbara batean jolasean ari diren ume batzuk jantzi eta traste zaharrez baliatuz irudimenezko eta fantasiazko mundu batera bidaiatuko dute. Kantuaren bideoklipa ere ikusi ahal izango da laburmetraian.

## Odisea etxaldean

Urko Mauduit eta Ioseba Salaberri

Bi lagun hauek RenderizARTE animazio estudioa sortu zutenetik hainbat lan egin dituzte elkarrekin 3Dan oinarrituta. Oraingo hau ere ildo beretik dator: Etxalde koloretsu eta dibertigarri bateko oilo berezi

eta eroek ez dute beraien irudimena besterik behariko abentura ikusgarri batean murgiltzeko. Ez da urruti joan beharrik espazio bidaia egiteko.

## Zorion hutsa

HUEZiko ikasle taldea

Karrera amaitzeaz daudela, Estibaliz Ariz, Itziar Faido, Janire Fernandez, Vanessa Martin, Gorka Montiel eta Malen Ulaizak film-labur bat egin dute: "hutsa" hitzak euskaraz duen esanahiarekin jolastuz, bi istorio kontatzen dituzte, zeintzuk filmaren une batean, patuak hala nahi duelako, elkartu egingo diren. Drama bat da.

Azkenik, Topaguneak 2009an Bermeon antolatutako Kamaratoia lehiaketako bi lan saridunak ere ikusi ahal izango dira: "Nireak dira" eta "Neguko hitzak". dira bi laburren izenburuak.

URDAIKARIAK  
*Altuna*  
HARAKINAK

Korreo. 39  
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA  
Gipuzkoa

TG  
GORRI

Paper manipulaziorako  
makina eraikuntza  
Konponketa  
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.  
Baratzondo D 26. Ibarra  
Tel.: 943 671 590.  
Faxa: 943 673 916

euskararen  
semaforoa  
euskararen semaforoa  
blogspot.com

ZABALA  
DESGUAZEAK  
KUDEATZAILE BAIMENDUAK  
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA  
TEL./FAXA: 943 671 790 -  
MUGIKORRA: 696 593 347

# “Txirrindularia baino lehen

Bizikleta gainean edo bizikletatik jaitsita egon, hankak lurrean ditu Aitor Ocampos txirrindulari ibartarrak. Belca-Oriakon 8 urte eman eta gero, Euskaltel Euskadiko filiala den Naturgas taldearen elastikoa estreinatu du aurten. Badaki soilik ondo egindako eguneroko lanak emango diola txirrindularitzan gora egiteko aukera. Gogo berarekin ari da Zuzenbide Ekonomikoko ikasketak burutzen Nafarroako Unibertsitatean. Lotarako 8 orduak kenduta, egunari geratzen zaizkion 16 orduak entrenatzen eta ikasten ematen ditu 20 urteko ibartarrak. Umiltasunaren eta sakrifizioaren eredu da.

## Erredakzioa

Iruñean pasatzen du astea Aitor Ocampos-ek. Naturgas Energia taldea berriz arabarra da, eta elastiko gorria daramaten txirrindulari gehienak ere bertakoak dira. Aitor da Gipuzkoako kide bakarra. “Hasieran uste nuena baino hobeto moldatzen naiz: autoz Iruñeatik ordu bete eskasera dut Gasteiz. Gainera, taldea bidaiak ordaintzen ahalegintzen da. Giro ona dugu txirrindularien artean. Denak gazteak gara, eta ikasteko gogo handiarekin gaude, batez ere Naturgas-ekin estreinatu garenak”, azaldu du pozik. Orain txirrindularitzak lehen baino denbora gehiago eskatzen dio: Entrenamendu gehiago lantzen dituzte eta txirrindulari bakoitzari entrena-



mendu pertsonala jartzen diote. “Baina guzti horrek, ondo entrenatzen ari zarenen sentsazioa eta lasaitasuna ematen dizu”, borobildu du.

Talde giroan eta entrenamenduetan ondo, eta lehiaketan ere bai. Esate baterako, lehenengo hamarren artean helmugaratu zen Zumaia eta Villatuertako lasterketetan. Hasieratik sentsazioak onak izan dira, baina oraindik ez nago ehuneko ehunean. Ondo entrenatzen ari naizen arren, unibertsitateak atsedenerako denbora gutxi uzten dit eta ezin ditut entrenamenduak asimilatu”. Maiatzean azterketa garaia iritsiko da, eta orduan ikasketei lehentasun osoa emango die. “Uste dut udarakoa izango dela nire momenturik onena, maiatzeko azterketak amaitu eta iraileko deialdia iritsi bitartean”.

## Nafarroako itzuliarako gogoz

Bologna prozesua dela eta, azterketa datak ekainetik maiatzera aurreratu dituzte. Aldaketa honegatik eta Naturgas taldea BELCA-ORIAKO baino lasterketa gehiagotara iristen denez, aurten inoiz parte hartu ez duen lasterketetan izango da Aitor. Nafarroako itzulia da horietako bat. “Gogo berezia dut itzuli hau egiteko. Orain Iruñean bizi naizenez, entrenatzen dudan errepideetan lehiatzeak motibatua egiten nau”. Maiatza amaieran izango da hori. Aurretik ordea, apirila amaieran zehazki, Arabako itzulian parte hartuko du. “Pena bakarra daukat: azterketa egunen aldaketa dela eta ezingo dut Bidasoako itzulian parte hartu”.

Taldeak ez dio helburu zehatzik jarri ibartarrari. “23 urtez azpiko txirrindularia naizenez,



# Aitor Ocampos pertsona naiz”

erregulartasuna eskatu didate. Horregatik, lasterketa bakoitza izango da garrantzitsua”. Batzuetan lasterketa lehiatzeko irtengo da helmuga lerrotik, Villatuertan kasu, eta besteetan taldekideei laguntzea egokituko zaio.

## Sakrifizioa eta umiltasuna

“Txirrindularia baino lehen pertsona naiz”. Argi dauka hori Ocamposek. Horregatik ari da ikasten, “txirrindularitza uzten duen egunean ekonomia eta zuzenbidean aritzeko”. Izan ere, bere hitzetan ez da nahikoa pedalei eragiten jakitea: “munduan bizi naiz, eta bizikleta gainean ez ezik beste arlo batzuetan mugitzen jakin behar dut. Nahiz eta txirrindularitza asko gustatu eta haizea alde eduki, oso arriskutsua da bizikletara mugatzea. Izan ere, oso gutxi dira txirrindulari profesionala izan ondoren kirol honetan lan eginez bizitzea lortzen dutenak”. Hausnarketa hau eginda, ikasketek lehentasun osoa dute Aitorren bizitzan.

Disiplina handiarekin burutzen ditu bere eginbeharrak egunero: “Nik beti esaten dut egunak 16 ordu dituela, 24ra iristeko falta diren 8 orduak lotarako erabiltzen baititugu. Egunero 07:15ean jaikitzen naiz eta ez


naiz gelditzen gaueko 23:15 arte. Klaseak goiz eta arratsaldez edukitzen ditut ostiraletan izan ezik. Entrenamenduak berriz 3 edo 4 ordukoak izaten dira. Maiz zailatasunak izaten ditut ordutegia antolatzeke, baina denboraren programazio egoki bat eginez gero beti da posible”.

Ahaleginak merezi du, “bizikletak eskatu didana baino gehiago eman baitit”. Bizikleta gainean asko ikasi duela azaldu du, eta irakaspen horiek baliogarriri izan zaizkio lehiaketarako eta baita bizitarako ere. “Taldea egiten ikasi dut, eguneroko sakrifizioa eramaten; umilagoa izaten lagundu dit; lagun on asko eman dizkit; eta nire mugak non dauden erakutsi dit”.

Aitorren ametsa txirrindulari afizionatu orok duen amets bera da: profesional izatera iristea. Orbea taldeaz galdetuta, Euskadi fundazioaren barruan beste pauso bat dela adierazi du. “Lasaitasuna ematen dit ondo entrenatu eta aurrera pausoak ematen baditut bertan egoteko lekua izango dudala jakiteak. Profesionalek eraman zaitzakeen beste faktorerik ez dago lana ondo egitea baino”. Ideia horrek motibatzen du egunero unibertsitatek atera eta bizikle-

taren gainean jartzeko. “Gauzak ondo egin eta entrenamendu nahiz lasterketetan ahal dudana guztia ematen saiatzen naiz”, aitortu du, “azkenean, profesionala izatea lortzen ez badut, nire gorputzak gehiago ezin duelako izango da, eta ez lana gaizki edo gogorik gabe egin dudalako”.


## Hitz onak BELCA-ORIAKOrentzat

23 urtez azpiko mailan es-treinatu zen urtean emaitza bikainak erdietsi zituen txirrindulari ibartarrak. Hori dela eta talde ugariren eskaintza jaso zuen. Berak BELCAN jarraitzea erabaki zuen ordea, “BELCAk, emaitza onak edo txarrak bildu, 23 urtez azpikoetan bi urtez lehiatzeko aukera ematen zuelako eta ez zitzaidalako justua iruditzen denboraldi bat egin eta alde egitea; gainera oso harreman ona nuen bai talde teknikoarekin eta baita kideekin ere”. Bederatzi urte zituela hasi zen Aitor BELCA taldean eta bertan egin du 23 urtez azpiko mailara arteko ibilbidea. “Txirrindularitza maitatzen ikasi nuen; bertan eman nituen nere lehenengo pedalkadak eta kamiseta gorri-beltzarekin lortu ditut lehenengo garaipenak; txirrindularitza dakidan ia guztia BELCAN erakutsi didate”. 

# ZETA<sub>sl</sub>

## MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa  
20400 TOLOSA  
Tel.: 943 672 728  
Faxa: 943 673 219



## ARTE TAILERRA

### HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa, margoak, eskultura.

Larrugintza ikastaroa helduentzako  
Bozetadoa, patronajea eta larruzko tiraz josia.

Matrikula irekia  
Data zehazteko  
Ikasleen erakusketa martxoaren 29tik apirilaren 16ra.

Tolosa - Kale Nagusia, 16  
Tlf. 677 340 685

## Gozotegia

## Okindegia

# ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

## irakurri entzun Ikusi

### Aulki jokoa Uxue Alberdi

Euskal Herriko kostaldeko herri batean, pertsona adindu talde bat elkartzen da kafetegi batean. Euren kontakizunekin, nolabait herri horren historia osatzen dute. Uxue Alberdi idazlea aiton-amon koadrila horrekin eseri zen, egunak joan eta egunak etorri, hain zuzen ere liburu hau osatzeko. Xamurra eta gogorra aldi berean.



### Suaren Garaia, Errauts Errakai M.A.K.

"Suaren Garaia, Errauts Errakai" 2007aren bukaeran argitaratu zen. Disko honekin bi proiektuei ekin zieten; batetik, diskoaren grabaketa M.A.K. Kanal Historikoarekin; eta bestetik, zuzeneko atala, M.A.K. Kanal Akustikoarekin, instrumentu errealekin jorratuta. Jazz eta funk doinuak hip-hop soinuekin uztartu zituzten, gainetik euskaraz rapeatuz. Kolaboratzaile pilo batek hartu zuen parte, tartean Aire Ahizpak. Ahotsen artean aurkituko dituzue ere Jon Maia, Igor Elortza edo Sorkun, besteak beste. Informazio gehiago [www.myspace.com/makhiphop](http://www.myspace.com/makhiphop) <<http://www.myspace.com/makhiphop>> -en.



### Fahrenheit 9/11

Michael Moore  
Irailak 11ko atentatuen kausa eta ondorioei buruzko dokumentala da. Irak-eko gerraren pisua eta orduko presidente George Bushen familien eta Bin Laden-en familien arteko binkulua aztertzen du.



# hitzorduak

Apirilaren 9tik 23ra arteko

## Erakusketa

Aranburu Jauregia

- Apirilak 10era arte: "Aurrez aurre - Emakumeak protagonistak" erakusketa interaktiboa.



- Apirilaren 16tik ekainaren 12ra: Nisa Goibururen "Y au asi, somos naturaleza" erakusketa.

- Apirilaren 23tik aurrera: Adolfo Tannenbalum-en erakusketa.



GKO Gallery

- Apirilaren 16tik maiatzaren 1era: Mikel Telleriaren lana erakusgai. Asteartetik igandera zabalik.



TOPIC

- Maiatza amaierara arte: Txinako Txotxongiloetako pertsonaia tradizionalak.


## Ikuskizunak

Leidor

- Apirilak 16: Txalo Produksioaren eskutik "Arrastoa" antzezlarina, 20:30ean.



- Apirilak 17: "Mokolo eskerrik asko" pailazoaren ikuskizun berezia 12:00etan.



TOPIC

- Apirilak 23: The con Harold Pinter y Dario Fo lana teatro estudioaren eskutik, 20:00etan.

Errota haur liburutegia

- Apirilak 9: Zientzialari zoroak emanaldia 12:00etan.

- Apirilak 15: Mirian Mendozain puin kontalariaren saioa.



## Musika

Leidor

- Apirilak 23: Ken Zazpi taldearen "Ken Zazpi urte" kontzertua 22:30ean.



## Ikastaroak

TOPIC


- Apirilaren 6tik 12ra: Paperezko antzerki tailerra.

## Azokak

- Apirilaren 11etik 12ra: Stoc & Braderie azoka.

## Naturaldia 2010

- Apirilaren 16tik 22ra: naturaren inguruko hitzaldiak adituen eskutik.



## Txolarre Irratiaren X. urteurrena

- Apirilak 16: Ilunabar literarioa Bergarako Idazle Eskolako ki-deek eskainita. Adunako udaletxeko aretoan 20:00etan.

## Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Internet + e-administrazioa	2010.04.06	20
Nazioarteko gaurkotasuna. jesús torquemada.	2010.04.12	20
Paper makina	2010.04.12	50
Dementziak: jarduera jarraibideak eta jokabide desorekak	2010.04.12	15
Irudi digitalen tratamendua ( i eta ii)	2010.04.12	8
Geriatría-laguntzailea	2010.04.12	315
Iturgina	2010.04.19	755
Altzari muntatzailea eta zurgintzako elementuak	2010.04.19	370
Etxeko lanetan trebatzeko ikastaroa	2010.04.19	10

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia  
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA  
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Teléfonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Posta-e: [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com)  
Webgunea: [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com)

## Goardiako farmaziak

### Ostirala, 9

Azpiroz L.  
Amaroz 9  
Tolosa

### Larunbata, 10

Olarreaga J.  
(Korreo kalea, 2)  
Tolosa

### Igandea, 11

Santamaria I.  
(Nafarroa etorb.2)  
Tolosa

### Astelehena, 12

Echeveste Jesus M.  
(Gernikako arbola, 3)  
Tolosa

### Astearte, 13

Morant R.  
(Zabalarreta, 1)  
Tolosa

### Asteazkena, 14

Bronte C.  
(korreo kalea 20)  
Tolosa

### Osteguna, 15

Olarreaga M.  
(Martin J. Iraola, 10)  
Tolosa

### Ostirala, 16

Azpiroz L.  
Amaroz 9  
Tolosa

### Larunbata, 17

Iturrioz I.  
(Euskal Herria, 3)  
Ibarra

### Igandea, 18

Tolosa M<sup>a</sup> Isabel  
(Nagusia, 7)  
Tolosa

### Astelehena, 19

Santamaria I.  
(Nafarroa etorb.2)  
Tolosa

### Astearte, 20

Ugarte M<sup>a</sup>T.  
Euskal Herria, 46  
Ibarra

### Asteazkena, 21

Olarreaga J.  
(Korreo kalea, 2)  
Tolosa

### Osteguna, 22

Bronte C.  
(korreo kalea 20)  
Tolosa

### Ostirala, 23

Olarreaga M.  
(Martin J. Iraola, 10)  
Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdia, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 321  
10eko apirilak 9



Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa

Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA  
**ZUEN TZART**  
*eskuz esku  
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA  
[ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET](mailto:ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET)  
TEL. 943 650 359

**TINDATEGIA**

Laskorain kalea • TOLOSA  
Tel.: 943 652 618

**ARALAR  
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943 654 916

# Muxutruk

## lana

• Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527

• Ingeleseko klaseak ematen dira, bakarka edo taldean, maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.160.268

## Etxebizitza

• Etxebizitza salgai izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

• 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699.806.631

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125"

• Etxebizitza abuhardilalatu salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitsua eta bista onak. 685.765.855

## Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858

• Igin markako akordeoia saltzen da. Tainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

# Horoskopoa

Apirilaren 9tik 23ra arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Hilabete hauetan nekatu xamar zabil-tza. Nekeari aurre egiteko jarrera egi-ki bat hartzea da irtenbidea. Unean uneko bizitzeko ahalegina egin behar duzu. Kontuz, jende interesatua dabil zure inguruan.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Ez dira aste onak zure loarentzako. Zerbaitek kezkatuta edukiko zaitu. Soluzioa ez da lotarako pastillak har-tzea, kezka iturri izango den pertsona horrekin hitz egitea baizik. Kontuz ez-tarriarekin.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Orain arte ez bezala, sentituko zara bere aurrean. Berak zurekiko jarrera aldatu duen seinale da hori. Zuk ere aldatuko bazenu, are eta atseginagoa izango litzateke zuen arteko harre-mana.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Atseginagoa izan beharko zenuke begiko ez dituzun pertsona horiekin. Zuk gustuko ez dituzala eta mespre-tsatzen dituzu, baina beraiek ez di-zute ezer egin. Jokaera horrek kalte egiten dio zure irudiari.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Besteen lekuan jartzeak ingurukoen egoera hobeto ulertzen lagunduko li-zuke. Izan ere, bada pertsona bat zure ulermenaren zain dagoena. Gainera, baliteke frogatzea zure adiski-detasan maila neurtzeko.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Lanean aldaketaren bat izango duzu. Ziurrenik ordu-tegiaren ingurukoa izango da. Aldaketa hori zuri, eta ba-tez ere, zure bikote bizitzari denbora gehiago eskaintzeko baliatu beharko zenuke.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Asteari aurre egitea gogorra egiten ari zaizu. Horretarako ona da motibazio bat bilatzea: Afaritxo bat, zinemarako plana egitea, ardo goxo botila bat zabaltzea... Helmuga bistan bada erra-zago egiten da bidea.



## scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Diruz larri zabilta eta agineko mina hasi zaizun arren ez duzu dentistarena joan nahi. Inbertsiorik onena ordea, osasunean egiten dena da. Berandu baino lehen eskatu hitzordua.



## sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Ez litzazuke gaizki etorriko gorputz garbiketa bat egitea. Bestalde, ibili tentuz! Norbait zikin jokatzen ari da zurekin. Informazioa ezkututzen ari zaizu.



## capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Neurtu zure hitzak eta keinuak. Oso sentibera dago eta min eman diezai-kezu. Aspaldi ez zara lagunekin egon. Beraietaz ahaztu zarela pentsatzen ari dira. Egin imintzio bat gutxiene!



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Zerbait ezberdina, ezohikoa egia on egingo dizu, erokeria dirudien arren baita bi egunez lana egiteari uztea ere. Ideiak agortu zaizkizu eta atsede-na behar duzu.



## piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Lortu ez duzun horretaz penatuta egon beharrean, hobe atea behin betirako itxi eta beste berri bat zabaltzea. Asteburu hauek bete-beteak izango dituzu. Kontuz, bizitza sozialak ere estresatu egin dezake!



# Joseba JATETXEA

Aizkibel 10  
FLOREAGA JAUREGIA

**AZKOITIA**

TEL: 943 85 34 12  
[www.josebajatetxea.com](http://www.josebajatetxea.com)



w w w . j o s e b a j a t e t x e a . c o m



3 jangela

- Ezkontzak
- Bataioak
- Jaunartzeak
- ...



GOI ESKOLA  
POLITEKNIKOA

ESCUELA  
POLITÉCNICA  
SUPERIOR

**PREST**  
**m**  
**MONDRAGON**  
**UNIBERTSITATEA**



## ATE IREKIAK

Goierriko campusa

**INGENIARITZA**

**APIRILAK 17**  
larunbata - 11:00  
**ORDIZIA**

**ARETO NAGUSIAN**  
etorri aurretik izena eman!

**902 110 436**  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



**skunkfunk**  
people do funk

Kale Nagusia 21-23, 20400 Tolosa. Tel.: 943 67 38 62  
[www.skunkfunk.com](http://www.skunkfunk.com)

# Kimetz

Neska eta mutil arropa